

SAILBURUA
LA CONSEJERA

Agindua, 2020ko abenduaren 14koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez indarrik gabe uzten baita Osasuneko sailburuaren 2020ko urriaren 6ko Agindua aldatzen duen 2020ko azaroaren 13ko Agindua, osasun-arloko profesionalak prestatzeko bekak eta laguntzak arautzen dituen eta horietarako deialdia egiten duena.

Osasuneko sailburuaren 2020ko urriaren 6ko Aginduaren bidez, osasun arloko profesionalak prestatzeko beken eta laguntzen 2020ko deialdia egin eta horiek arautu ziren.

2020ko azaroaren 13ko Aginduaren bidez, 2020ko urriaren 6ko Aginduaren 2. eta 10. artikulua aldatu ziren.

Aldatzeko agindu horretan, eskabideak aurkezteko beste epe bat ezarri zen, hilabetekoa (1), Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2020ko abenduaren 4an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Ondorioz, eskabideak aurkezteko epea 2021eko urtarrilaren 4an amaituko litzateke, eta ezin izango lirateke ebatzi 2020ko abenduaren 31 baino lehen.

Horregatik guztiagatik, indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Indargabetuta uztea Osasuneko sailburuaren 2020ko urriaren 6ko Agindua aldatzen duen 2020ko azaroaren 13ko Agindua, zeinaren bidez osasun-arloko profesionalak prestatzeko bekak eta laguntzak arautzen eta horietarako deialdia egiten baita.

Bigarrena. – Espediente honetako jarduketak indarrik gabe geratzen den Agindua onartu aurreko unera atzeratzea, aurkeztutako eskabideak izapidetu eta ebatzi ahal izateko, Osasuneko sailburuaren 2020ko urriaren 6ko Aginduari jarraikiz (osasun-arloko profesionalak prestatzeko 2020ko beka eta laguntzetarako deialdia egiten duena eta horiek arautzen dituen).

Hirugarrena.- Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Laugarrena.- Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez diezaioke Osasuneko sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua EHAAn argitaratu eta biharamunetik aurrera.



Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 14a.

Osasuneko sailburua,

MIREN GOTZONE SAGARDUI GOIKOETXEA.